



Guztion Lasarte-Oriak baditu sarituak. - Hormak biziberritzeaz arduratu ziren artistak omendu ditu asteburu honetan Lasarte-Oriako Udalak. Jorge Gordillo Martinezek irabazi du lehen saria, "Corazón" izeneko artelanarengatik. Hipodromo etorbidean kokatuta dagoen margolanak lasterketako zaldia irudikatzen du. Esaldi batekin borobildu zuen Gordillok horma: "Eman lehenik zure bihotza eta zaldiak gaingituko du oztopoa". Bigarren Pablo Astrain izan da, hirugarren Ane Arsua-ga, laugarren Aleksei Lacalle eta bosgarren Artitadeto artista elkarteak. Alkate Jesus Maria Zaballosek nabarmendu du maila handiko lanak aurkeztu dituztela 2016an, eta 22tik bost aukeratzea ez dela erraza izan. Bestalde, aurtengo eta iazko hormak 2017ko Udal egutegian azalduko direla iragarri dute. Ekimenak herrian izan duen harrera positiboa azpimarratu dute ordezkari eta teknikariek. Egoera kaxkarrean dauden herriko guneak berreskuratzea da Guztion Lasarte-Oria lehiaketaren helburu nagusia. Artista hauei esker, bost horma koloretsu gehiago edukiko ditugu.

2 AISIA

Mende laurdenari errepasoa Ttakun Kultur Elkarteak

Azken 25 urtetan Ttakun Kultur Elkartearen aisia sailak antolatutako ekintzen erakusketak bete du Antonio Mercero aretoa egunotan. Gazte Klubeko lagunek bisita egin zuten ostiral arratsaldean, erakusketa amaitu aurretik. Mende laurden honetako egitasmoak ezagutzeko parada izan zuten, baita euren ekintzetako bideoak ikusteko ere.

4 EUSKARA

D ereduko kirola eztabaidagai Udaltop jardunaldietan

Gazteak, kirola eta euskara. Horiek izan ziren osteguneko eta ostiraleko Udaltop jardunaldietako ardatza. Aurrera begira, eragile guztien elkarlana beharrezkoa dela ondorioztatzen zuten hizlariak. Zarauzko kirol teknikari Iratxe Aranburuk, jardunaldiei amaiera emanetz, nabarmendu zuen "etxerako lan pila" dituztela.

5 BERTSOLARITZA

Bertso eskolaren 25. urteurreneko ospakizunak

Lasarte-Oriako bertso eskolako zilarrezko ezteiak ospatu ditu asteburuan. Ostegunetik igandera ekintza ugari egin dituzte. Andoni Egañarekin solasaldia izan zuten ostegunetan, Gabiriaren eta Lasarte-Oriaren arteko desafioa ostiralean eta "Ez da kasualitatea" bertso saio musikatua igandean. Larunbatean, berriz, batera bazkaldu zuten.



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

Amatxo,
har ezazu egun bat
zuretzako!

Zatoz eta opari txartela prestatuko dizugu ezusteko polit bat eman diezaiozun amari:

- Zure aurrekontura egokitutako opari-txartela egingo dugu
- Tratamendu eta estetika zerbitzuen artean aukeratu dezakezu, edo bono bat egin dezakegu berak nahi duen zerbitzuan erabiltzeko!

Emakumezkoen ahotsak protagonista

Musika topaketekin jarraituz, Aqua Lauda abesbatzak emanaldia eskaini zuen Brigitarren komentuan ostiral arratsaldean.

Herritarrek gogoz hartu zuten saioa. Izan ere, lasarteoriatar ugari hurbildu zen Brigitarren komentura. Horieta batzuk atzaldetik ikusi behar izan zuten, eserleku liberrik ez baitzen geratu.

19:30etan hasi zuten saioa eta bertaratutakoek errepertorio zabal batekin gozatzeko parada izan zuten. Gehienbat emakumez osatutako koruak garai ezberdinetako piezak interpretatu zituen; biei, musika sakroari eta profanoari, lekua eginez.

Besteak beste, Kalistoren Kodexeko ereserkiak abestu zituzten, Pablo Neruda poesiegile txiletarraren "Tu risa" lanaren moldaketarekin amaituz.

Hiru solistek hartu zuten parte: Montse Latorre herritarrek –sopranoa–, Mario Hernandezek eta Pili Anuncibayek –altuak eta mezoak–.

Herrikideen txalo zaparrada hunkigarria jaso zuen Latorrek bakarkako zatiak abestean.

Javier Busto hondarribitarrek zuzendu Aqua Lauda. Esperientzia handikoa da; 1971tik gidatu ditu koruak mundu osoan zehar.

Antzerkia

Datorren larunbatean, hilaren 30ean, "Letter, eskutitz baten bidaia" izeneko antzerkiak gozatzeko aukera izango da.

Gutunak dira antzezlanaren ardatz. Izan ere, egileek diotenez, "gure ahotik atera ezin diren hitzak esateko balio dute eskutitzek".

Adin guztietako ikusleek gozatu ahal izango dute ikuskizunaz.

Mende laurdenari errepassoa



Gazte Klubeko lagunek primerako arratsaldea pasa zuten ostiralean, erakusketako argazkiak ikusten.

Hamaika ekintza, jolas, irteera eta abentura antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteko Aisia sailak 25 urte hauetan. Are handiagoa da horietan ateratako argazki kopurua. Horieta asko bildu ditu pasa den ostiralera arte irekita egon den erakusketak, Antonio Mercero aretoan. Hainbat herritar gerturatu dira bertara hiru asteotan, irudi horiez gozatzera.

Garai batean bizitako emozio, sentimendu, bizipen eta antzekoak berpizteko gaitasuna daukate argazkiek. Hiru aste hauetan Antonio Mercero aretora gerturatu diren herritarrek ariketa hori bera egin dute, Ttakun KEk prestatutako erakusketari esker. Azken 25 urteetan antolatu dituzten ekintzetan ateratako irudiekin galeria koloretsu

askoa osatu dute. Batek baino gehiagok Ttakunen programe-tako batean parte hartzaile izan zeneko garaia gogoratu ditu hainbat urteren ondoren, beste batzuek ikusi ahal izan dute haurrak zirenetik begirale izan arteko bilakaera... Memoria ariketa polita egin dute erakusketa ikustera joan direnek.

"Erakusketak balio izan digu ohartzeko zenbat herritar

igaro diren gure programetatik: gazteak, begiraleak... Islatzen du baita ere zenbat ekintza egin diren 25 urte hauetan. Erabiltzaileen garapena ikusi ahal izan dute", dio Pili Bermejo arduradunak. "Balorazio ona egiten dugu; jende ugari animatu da erakusketara".

Gazte Klubeko gaztetxoak erakusketaz gozaten

Ostiralean, itxi aurretik, argazkiak ikustera joan ziren Gazte Klubeko lagunak. Arratsalde ederra igaro zuten, irudietan euren buruak, lagunak edota ahaideenak ikusten. Ostean, euren ekintzetako bideoak ikusi zituzten, alboko gelan.



Bilera irekian proposamen berria azaldu zuten Euskal Inauterietako konpartsako kideek.

Euskal Inauterietako konpartsa lanean

Euskal Inauterietako konpartsa asteazkenean egitasmoa moldatzeko lehen pausoa eman zuen, bilera irekia.

Taldeko kideek ekintzaren eraldaketaren zergatia eta ikuspegi berriaren nondik norakoak azaldu zituzten Villa Mirentxun asteazkenean egin zen bileran.

Argi utzi zuten Euskal Inauterietako oinarri dituen

baina Lasarte-Oriako identitatea mantendu eta esanahi propioa duen egitasmoa antolatu nahi dutela.

Etnografia taldea

Bileran erabaki batzuk hartu ziren ere. hala nola, proiektua eraldatzeko behar diren talde ezberdinak martxan jartzea.

Lehenengoa, etnografia taldea izango da eta hementik hilabetera bilduko da.


Talde honek konpartsari marko teorikoa eskainiko dio Euskal Inauterietako pertsonaiak, usadioak, etb. aztertuz.

Laguntzaileak

Konpartsako kideek talde ezberdinen bilerak jakitera emango dituzte. Lagundu nahi duten herritarrek Ttakun kultur elkarteko bulegora hurbildu eta bertan taldeekin harremanetan jarriko dituzte.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

INGURUMENA

Paisaien katalogoa egiteko parte hartze prozesua abian

Buruntzaldeko saioa maiatzaren 11n, Urnietako kultur etxean

Eusko Jaurlaritzak Donostialdeako eta Bidasoa Beheko paisaien katalogoa egiteko asmoa adierazi du. Horretarako, eskualdetako herritarrek gonbidatu dituzte euren proposamenak eta iritziak partekatzen. Mota askotako paisaiak hartuko dituzte kontuan, ez bakarrik naturgune eta landagune "aipagarriak".



Baloratuko duten Lasarte-Oriako paisaietako bat.

TXINTXARRI

Maiatzaren 12an amaituko den prozesuak katalogoan jasoko diren paisaiak zehaztea du helburu. Buruntzaldeko kasuan, hilaren 11n egingo dute foroa Urnietako Lekaio kultur etxean. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da saioa eta 20:30ak arte luzatuko da.

Ohiko paisaietatik haratago "Ikuspegi integratzaile" batetik definitu dute 'paisaia' hitza, 'Paisaiaren Europako Hitzarmenari' jarraituz. Hau da, naturgune eta landagune aipagarrietaz gain, hiri eremuak eta paraje degradatuak ere kontuan hartu dituzte.

Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, egungo gizarteak "bere inguruari" buruzko kezka handitu du. Horregatik, paisaiaren kudeaketan "lurraldearen pertzepzio soziala" bultzatzearen

aldekoak dira.

Faseak

Ekimena aurrera atera ahal izateko eragile ezberdinak kontuan hartu dituzte. Lehenik, paisaiaren agenteekin hitz egin dute; kudeaketan eragina duten erakunde eta instituzioekin alegia.

Inguruari buruzko haien pertzepzioa jasotzea da lehenengo fase honen xedea.

Profil ezberdineko herritarrek batu dituzte, ondoren. 10 eta 15 pertsona inguruko mahainguruak osatu dituzte, informazio anitza ateratzeko asmotan. Paisaiak deskribatu eta horietan eskuratu beharreko helburuen inguruan aritu dira. Ondoren, "egoera egokia" lortu ahal izateko ekin-tzak eta irizpideak proposatu dituzte.

Apirilean eta maiatza hasieran herritarrentzako foro

irekiak egingo dituzte. Buruntzaldekoa, esan bezala, maiatzaren 11n egingo dute Urnietan.

"Balio paisajistikoei buruzko informazioa gerturatzeko" du helburu ekintza honek.

Prozesu parte hartzailea martxan da jadanik 'Irekia' plataforman. Ondorengo helbide elektronikoan, alegia: www.paisaiarenkatalogoa.com

Hautatutako paisaien inguruko balorazioa eman ahal izango da.

Azken xedekak, Donostialdeko eta Bidasoa Beheko paisaien katalogoak, tresna izan nahi du; lurraldearen kudeaketarako, antolakuntzarako eta planifikaziorako baliogarria izango dena.

Katalogoa idazteko lana Basoinsa-Sigmaten ABEEko teknikariek hartu dute.

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Txiletarrek ikasketak burutu dituzte

Usurbilgo Lanbide Eskolara Energia Berriztagarrien inguruan formakuntza sakona jasotzera Txiletik etorritako ikasleek bere ikasketak amaitu dituzte.



Lehenengo asteazkenean izan zen ikastagierien banaketa ekitaldian Usurbilgo Xabier Arregi Alkatea zein Lasarteko Beatriz Juez Ekonomia Zinegotzia izan ziren.

HITZALDIA

Preso eta iheslarien etxeratzeari dagozkion estrategia eta bideez

Xabier Alegria eta Jose Domingo Aizpurua preso ohiek 'Amnistiaren norabidean preso eta iheslariak etxera' izeneko hitzaldia eskainiko dute ostegunean, Manuel Lekuona kultur etxean, 19:00etan. Sortuk eta Iratzar fundazioak antolatu dute.

'Abian da bidea' ekimena 1.600 preso eta iheslari ohiek sinatu dute, horien artean, zenbait lasarteoriatarrek. Espainiako eta Frantziako estatuek presoak "bahitu politikoen" gisara dituztela salatu dute.

UDALA

Estimulazio kognitiboko taldea

Lasarte-Oriako Udalak, mendekotasuna prebenitzearen eta norberaren autonomia sustatzearen helburuarekin, estimulazio kognitiboko bi talde dauzka eta plaza libreak daude bi taldeetan.

Zerbitzu horren hartzailak arazo kognitiboak dituzten pertsonak dira, betiere gaixotasunaren hasierako edo tarteko etapetan badaude. Taldeko jardueren bitartez eta monitore baten laguntzarekin, gaitasunak lantzen eta estimulatzeko saiatzen dira, memoriako eta kalkuluko ariketen bidez, albisteak irakurritik, idatziz, ohiko ibilbideak gogoratuz...

Interesatua dagoen edonork alde aurretik bere langile sozialarekin egon beharko du, hark kasu bakoitzaren balorazioa egingo baitu. Hitzordua eska dezakete bai Villa Mirentxura etorrira, baita 943 376 179 telefonora deituta ere.

ERREFUXIATUAK

EB eta turkiaren arteko akordioa salatzen elkarretaratzea

Lasarte-Oriako Udalak herritarrek deitu dituzte gaurko 19:00tan Okendo plazan EB eta Turkiaren arteko akordioaren aurka kontzentratzera. "Gerratik ihesi" dauden pertsonen babesa eskaintzeko asmoa erakutsi dute, "gure lurretan aterpea bilatzen" laguntzeko.

Albenizeko eta Iparraldeko kanpaldietarako plazak daude oraindik

Albenizeko aterpetxean lagunekin ongi pasa nahi duten LH3 eta LH4 mailako edo Iparraldera hamaika abentura bizitzera joan nahi duten DBH3-4 mailako gaztetxoek oraindik aukera dute Ttakun elkarteak Udalen laguntzaz antolatzen dituen egonaldi edo kanpaldietan izena emateko.

Uztailaren 18tik 27ra Albenizen egingo dute egonaldia LH3-LH4 mailako lagunek eta zaharrenek uztailaren 17tik 29ra 'Mugarik gabe' kanpaldian parte hartuko dute.

Izena ematea Ttakuneko bulegoan egin behar da maiatzaren 5a baino lehen.



Inskripzioa egiteko Ttakuneko bulegoan eskuratu ahal da izena emateko orria.

Honetaz gain, gaztearen NAN eta familia liburuaren kopia ere beharrezkoa da.

Plaza ordainketa egitean baieztatuko da eta plazak esleitzeko orduan, hurrenkera kontuan izango da.

Oporraldien ordainketa egiteko bi aukera daude, bata

Ttakuneko bulegoan txartelaz egitea edo Kutxabaneko 2095-5048-18-1061552351 kontuan diru-sarrerarekin egitea. Honetan haurren izena jarri behar da kontzeptuan.

Begirale lan-poltsa

Bestalde, Udako Txoko edo Donemiliagako edo Albenizeko aterpetxeetako egonaldietan begirale lanak egin nahi duten gazteek gaur dute izena emateko azken eguna.

Hauek bi baldintza bete behar dituzte: 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila altua izatea. Honetaz gain, titulazioa eta esperientzia ere kontuan izango dira.

Lan-poltsaren parte izateko Ttakun Kultur elkartearen eskuratu ahal duen dokumentu bat bete behar dute interesatuek eta honekin batera titulazioen edo agirien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte.

D ereduko Eskola Kirola xede: gakoa, elkarlana

Gaztetxoan euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko gakoak izan dira hizpide Udaltopen

“Etxerako lan pila batekin goaz hemendik”. Horrela zioen Zarauzko Udaleko kirol teknikari Iratxe Aranburuk ostiralean, aurtengo Udaltop jardunaldiek emandakoa laburbiltzen ari zela. Hitzaldiz, gogoetaz eta eredu jositako bi eguneko topaketak izan dira aurtengoak. Jomugan, hiru alor: gazteak, kirola eta euskara. Lan asko dago egiteke, baina gakoa badute: eragile guztien elkarlana.

TXINTXARRI

Topaketa hauek balio izan dute Zarauzko kirol teknikaria [Iratxe Aranburu bera] eta euskara teknikaria [Maite Etxaniz] elkartzeko: autoa partekatu, gaiari buruz gogoeta egin eta elkarlanean aritzeko; guztiontzat da inflexio puntu bat aurtengo Udaltop, hori baita helburuetako bat: saretzea, indarrak batzea eta elkarlanean aritzea. Modu horretan itxi zuen Iratxe Aranburuk ostiral eguerdian Manuel Lekuona kultur etxean emandako hitzaldia; Udaltopen aurtengo jardunaldietatik ateratako ondorioei buruz aritu zen, Maite Etxanizekin batera. Bi egunekoak izan dira 190 bat euskara teknikari, erakundeetako ordezkari, kirol elkarreketako kide eta beste bildu dituzten topaketak.

“Kirola D ereduan noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?” galdera planteatu dute aurtengo Udaltop jardunaldiek.

Aranburuk ostiralean esan zuenez, topaketetan ez diote eman erantzunik itaun horri. Eskola Kirola egitasmoa euskararen eremu normalizatu bilakatze data zehatzik ez dute oraindik, akaso, baina bai gakoa: elkarlana. “Eragile guztiok daukagu zer egina, gure eremutik, gure txokotik: Erakundeek, Udalek, kirol elkarreketak, gurasoek... Eskura ditugun tresnak erabiliz eta ikasitakotik abiatuz, urratsak eman behar ditugu”.

Etxanizek Jokin Larrañaga Arabako Foru Aldundiko eus-

kara zerbitzuko buruaren aipu bat ekarri zuen gogora: “8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoari eskolan ikasi bitartean euskaraz bizi dadin, euskarazko esparruak eskaintzea zor diogu, bestela ez delako elebidun oso bihurtuko; kirola esparru horietako bat da”. Zarauzko euskara teknikariak ez zuen kasualitatez hautatu esaldi hori: “Interesgarria da oso kontzeptu hori; zor diegu espazio horiek sortzea, ezin dugu haien bizkar utzi euskararen eta erabileraren erantzukizuna”.

“Posible da”

Soziolinguistika Klusterraren datuen arabera, EAEn bizi diren 14 urtez azpiko gaztetxoan artean %95ekoa da euskararen ezagutza; Nafarroan, %91koa. “Datuek erakusten dute gure gazteek betetzen dutela D ereduko Eskola Kirola ezartzeko baldintza minimoetako bat: ezagutzarena”, azpimarratu zuen Etxanizek. “Ezagutza badaukagu, legeak batzuk, adostasuna ere bai... Zer egin behar dugu? Adostasun are zabalago bat lortu, bere garaian hezkuntza sistemaren inguruan egin bezala, kontsentsu hori esparru honetara ekarri eta era natural batean lanari ekin. Posible da”.

D ereduko Eskola Kirol egitasmoa lortze aldera, proposamen zehatz sorta bat partekatu zuten Aranburuk eta Etxanizek entzuleekin. Batetik, erakunde guztien arteko adostasuna bilatu behar dela, Eskola Kirola euskararentzat eremu normalizatua izate bidean: “Konbentzimenduak gakoa izan behar du”, aipatu zuen Etxanizek.



Aurtengo Udaltop jardunaldietan 190 bat pertsona aritu dira hausnarketak egiten: hizlariak, euskara teknikariak, eta beste asko.

Lege orokorren bitartez, euskarari segurtasun juridikoa eman behar zaiola adierazi zuen Aranburuk –EAEn kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko Lege Proiektua sortze bidean da-. Erakundeekin jarraituz, Zarauzko Udaleko teknikariak aipatu zuten Eskola Kirola euskaraz izateko hizkuntza baldintzak ezarri eta betearazi behar direla Foru Aldundi eta Udalek ematen dituzten diru laguntzetan.

Kirol eskolen sorrerari buruz ere jardun ziren: horiek eratze baimenetan “eragin ahal izateko”, azterketa juridikoekin jarraitu behar dela iritzi diote. Azkenik, beharrezko ikusten dute “adostasun zabal” horretan parte hartuko duten erakundeek, neurriak hartzeaz gain, Eskola Kirola euskaraz egiteak dakartzan onurak gizarteratze-ko eta sustapen lana indartzeko konpromisoak hartzea.

Ostegun eta ostiralean kultur etxean bildu ziren entzuleentzat animo hitzak ere izan zituzten: “Jarraitu lanean zuen zituaz: ‘Jarraitu lanean zuen txokoetatik; iritsiko gara, goitik eta behetik, euskara normalizatzeraz, baita kirol esparruan ere. Altxor bat da euskara”.

Ostiral mamitsua

Udaltopen laburpen eta ondorioen berri izan aurretik, hainbat esperientziaren berri izan zuten parte hartzaileek. Jokin Larrañagaren eskutik ‘Begirale, begira egotetik ekitera’ hitzaldia entzun zuten; Burlata Futbol Eskolako kideek euren esperientzia partekatu zuten; eta Ikasmirak guneko kideek azaldu zituzten araubidean egin daitezkeen moldaketak, gaztetxoek kirola D ereduan egitea ziurtatzeko. Horiek, ordu erdiko atsedendialdiaren aurretik.

Irungo kasua ezagutu zuten, indarrak berri eta gero. Irungo udaleko eta BPXport enpresako arduradunek hitz egin zuten. Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko kide eta Jone Miren Hernandez EHUKo irakasleak ekintza proiektu baten berri eman zuten: ‘D ereduko kirola ikerketa ekintza proiektua’ du izena. 2016 eta 2018 urte bitarteko epea du. Jardunaldien ondorioak plazaratu zituzten Maite Etxanizek eta Iratxe Aranburuk. Gaizka Garitano futbol entrenatzaleari Ibon Gaztañazpi kazetariak egindako elkarrizketa batek itxi zuen egitaraua; bideoa ikusi zuten.

Mahai inguruak, aurrenekoak

Goiegi jatetxe mahaien bueltan ostegun arratsaldean egin dako solasaldiak izan dira aurtengo egitarauko berrikuntza nagusia. Harrera oso ona izan dute parte hartzaileen artean.

Euskara gaztetxoan kirolek elitekoraino kudeatzeari buruzkoa izan zen horietako bat. Bera Bera eskubaloit taldeko Matxalen Ziarsolo, Real Sociedad Fundazioko zuzendari Andoni Iraola eta Eneritz Iturriagaetxebarria Baque emakumezkoen txirringularitza taldeko entrenatzailea izan ziren hizlariak; moderatzaile lanak BPXport-eko kide Onintza Arregik egiten zituen.

Euskarak elitean eta harrobian duen presentzia alderatu zuen Iraolak: “Erdalduna da elitearen mundua, zaila da erreferenteak topatzea; euskalduna da harrobia”. Iturriagaetxebarriak adierazi zuen euskaldunak direla haren taldeko txirringulari guztiak, baina soilik laurekin aritzen dela euskaraz, besteek nahiago dutelako gaztelaraz hitz egitea. Ziarsolok nabarmendu zuen hazten joan eta elitera gerturatu ahala gero eta murriztagoa izan dela euskararen presentzia, jokatu duen taldeetan, baina indarra hartzen ari dela Bera Beran, jokalaria gazte euskaldun dezente ari direlako igotzen lehen taldera.

Beste solasaldian Eli Astiasaran Pasaiko Udaleko teknikaria, Fernando de Lera Loiuko Lauro Ikastolako irakaslea eta Asier Mujika Aretxabaletako Udaleko teknikaria aritu ziren solasean; Athlon-eko kide Endika Muruamendiarazek moderatu zuen mahai ingurua. Hiru horietako bakoitzak azaldu zuen gaztetxoan kirol jardueraren hizkuntzan eragiteko zeintzuk neurri hartu dituen urteotan herri bakoitzak.



Mahai inguruak izan dira aurtengo topaketen berrikuntza nagusia. Pare bat egin zituzten ostegun arratsaldean, Goiegi jatetxean.





Bertso eskolako kide eta kide ohiek elkarrekin bazkaldtu zuten Xirimiri elkartean



Patxi Etxeberriak, Ane Labakak eta Unai Muñoak osatu zuten Lasarte-Oriako taldea ostiralean.

Bertsoz bertso, 25 urte

Ekintzez beteriko 25. urteurrena ospatu zuen bertso eskolak

Bertsolaritzak, pixkanaka, bidea egin du Lasarte-Orian. 1992an sortu zen Bertso Eskola, eta ordutik herritar ugari igaro dira bertatik. Asteburu honetan ospatu dute 25. urteurrena egitarau bereziarekin. Besteak beste, eskolako kide eta kide ohien bazkaria, Andoni Egañaren hitzaldia eta, nola ez, bertso saio eta desafioak egin dituzte.

TXINTXARRI

Mende laurdena bete du Lasarte-Oriako bertso eskolak. Urteurrena ospatzeko asmoarekin egitarau mamitsua prestatu zuten.

Ostegunean Andoni Egañaren bisita jaso zuten Xirimiri elkartean. Gerturatu ziren lagunek bertsolariarekin solastu ziren bertsolaritzak azken 30 urteetan izan duen bilakaeraz.

80ko hamarkadaren bukaerako eta 90ko hasierako egoeraz aritu ziren denbora luzez. Egañaren ustez, orduantxe izan zuen bertsolaritzak "boom-a". 1986ko Txapelketa Nagusia izan zen telebistan botatako lehena, eta Hitzetik Hortzera bezalako saioak sortu zituzten. Egin eta

Deia egunkariaren sorrerak ere presentzia handiagoa eman zion.

Orduko pasadizoak gogoratzen merienda atsegina egin zuten Egañarekin.

Bertsotruk

Lasarte-Oriaren eta Gabiriaren arteko desafioak hartu zuen lekukoa ostiral gauean. Jalgi kafe antzokian egindako saioan Patxi Etxeberria, Unai Muñoa eta Ane Labakak ordezkatu zuten herriko bertso eskola. Goierritarren aldetik, aldiz, Eusebio, Endika eta Aratz Igarzabalek kantatu zuten.

Gabiria eta Agurain izan dituzte aurrez aurre herriko bertso eskolako kideek Bertsotruk egitasmoan. Guztira 26 herrik hartu dute parte hiruko multzoetan. Ostiralean abes-

ten aritutako Eusebio Igarzabal Lasarte-Oriako bertso eskolako irakasle ohia izanik, adiskide artean kantatu zuen.

Bazkaria

Zilarrezko ezteiak baliatu dituzte berriro ere atzoko, gaurko eta biharko bertsolari eta irakasle lasarteoriarrak elkartzeko.

Lasarte-Oriako bertso eskolako kide eta kide ohiek batu ziren larunbat eguerdian bazkaltzeko. Guztira, 25 lagun inguru elkartu ziren Xirimiri elkartean.

Ez da kasualitatea

Ospakizunari amaiera eman zioten Furia Beltza tabernan egindako bertso saio musikatuarekin. Oihana Iguaran, Miren Amuriza, Ane Labaka eta Alaia Martin aritu ziren bertsoetan, eta gai jartzaile lanak Amaia Agirrek egin zituen.

Saio gehienetan gizonezkoak gehiengoa izatea "kasualitatea ez dela" aldarrikatzen dute, eta horregatik, emakumeek osatutako bertso jaialdia antolatu dute.



Herritar ugari hurbildu zen igandean "Ez da kasualitatea" bertso saio feminista ikustera.



Bertsolaritzaren bilakaerari buruz solastu ziren Andoni Egañarekin.



Gabiriako Eusebio Igarzabal Lasarte-Oriako bertso eskolako irakasle ohia da.

MENDI LASTERKETAK.-

“Esperantza baino, ametsa zen podiuma lortzea”

BKT liga ari da burutzen Beñat Los Arcos herritarra; hirugarren izan zen 2. etapan, Lemoizen

Bizkaia Kopa Trail liga sasoi betean hasi du Beñat Los Arcosek. Bi etapa jokatu dira orain arte, eta balantzea kontuan hartzekoa da: zortzigarren helmugaratu zen Arrietan (aurrenekoan), eta podiumeko hirugarren mailara jauzi egin, Lemoizen. “Nire maila onena eman nuen Lemoizen; bikain atera zitzaidan lasterketa”, dio.

IÑIGO GONZALEZ

Kazetaria da Beñat Los Arcos. Elkarrizketak egitera ohitua dago, baina oraingo honetan berak erantzun behar izan ditu galderak. Ofizioagatik ez, afizioagatik izan da albiste berriki. Mendian lasterka aritzen da herritarra; BKT Bizkaia Kopa Trail ligan ari da parte hartzen, distantzia laburrean –hamar kilometrokoan–. Titularra, hauxe: hirugarren postua erdietsi zuen bigarren etapan, Lemoizen, apirilaren 17an.

BKTko bigarren etapari ekin aurretik, Los Arcosek ez zuen espero lerro hauetan titular hori idatzi ahaliko genuenik. “Esperantza baneukan aurrealdean ibiltzeko, hamar lehenengotan edo, baina podiumera igotzea, esperantza baino, ametsa zen”, aipatzen du.

“Lehen etapara baino sasoi hobean” iritsi zen herritarra Lemoizekora. “Lasaiago ekin nion probari: erdialdera arte, hamargarren postu inguruan joan nintzen”, oroitzen du. “Bi

aldapa gogorri” ekin zien orduan, eta “erabat” aldatu zen lasterketa: “Indartsu nengoan, gainontzekoak oinez zihazozen bitartean ni korrika, eta laugarren postura aurreratu nintzen”. Aurreneko hamar saikatuen artean sartzea “zaila” zela ikustetik, zuzenean podiumagatik lehiatzera pasa zen Los Arcos. Eta baita lortu ere: “Dena eta gehiago eman nuen hirugarrena harrapatu, atzean utzi, eta postu hori lortzeko; helmugan, ezin nuen sinetsi”.

Hurrengo erronka, Morga

Maiatzaren 15ean jokatu du Los Arcosek BKTko hirugarren etapa, Morgan. Ibilbidea ez du ezagutzen oraindik, baina uste du “azkarra eta oso berdindua” izango dela proba: “Aurrealdeko lasterkariak oso maila paretsuan gabiltza; Lemoizen podiuma egin nuen bezalatsu, orduko horretan gera naiteke hamargarren postuan, lasai asko”.

Lemoizen “maila onena” eman zuela dio herritarrek. 44 minutu eta 28 segundotan bota



BKT ligako bigarren etapan hirugarren postua erdietsi zuen Beñat Los Arcosek (eskubian)

ANNE ARBELAITZ

zuen etapa hori, baina hobetzeko tartea baduela iritzi dio herritarrek: “Gorantza egitea da nire asmoa”.

BKT ligan, bigarrenez

Bizkaia Kopa Trail proba berria dela esan daiteke, aurtengoa baitu bigarren edizioa. Estreinaikoan aritu zen Los Arcos, egutegiko azkeneko bi probetan. “Asko gustatu zitzaizkidan ligan antolaketa eta formatua bera; horregatik, aurten hasieratik aritzea erabaki nuen”.

Zortzi probak osatzen dute trail laburreko modalitateko egutegia. Martxotik abendura

bitarte hileroko jokatzeko lasterketa bat, uztaila eta abuztuan izan ezik. Azkenekoa Dimakoa izango da: abendua 18an ariko dira bertan.

Pauta jakin bat ez du jarraitzen Los Arcosek, egin nahi dituen lasterketak hautatzeko: “Egutegiari so egin, eta beti dago proba interesgarriren bat egiteko aukera”.

Entrenatzerakoan ere, berdin: “Ez dut lan-saio berezirik egiten; mendira korrika egitera joateko geratzen gara, gustatzen zaigu toki, mendi eta ibilbide berriak ezagutzea; gogoan pizten digu horrek”, dio.

Mendiaz disfrutatzen

“Elkartzeko aitzakiarekin” hasi ziren lasterka hiru lagun, duela zenbait urte. Gero, lurgi anaia-ekin, mendira joan zen korrika egitera Beñat, “diziplina hori probatzeagatik”. Orduetik, gaur arte, nahiz eta azken bizpahiru urteetan hasi den proba gehiagotan parte hartzen.

“Kirolaz gozatzeko aukera onena da niretzat; batez ere, mendiaz eta konpainiaz disfrutatzeke aitzakia perfektua. Ez naiz inoiz joaten bakarrik, eta horixe da onena: ezer lortu badut, haiei esker izan da”, nabarmentzen du herritarrek.

PILOTA.-

San Pedro jaietako Intza KEren txapelketa

Pixkanaka-pixkanaka gerturaten ari dira San Pedro jaiak, eta, horrekin batera, festa egun horietan jokatzeko diren kirol-ekitaldiak ere bai. Horietako bat da urtero-urtero Intza KE antolatzen dituen txapelketak ere: gaztetxoaren esku pilotarena, beteroena eta emakumezkoen pala txapelketarenarena. Maiatzaren 3ra arte eman daiteke izena.

Txapelketa horietan apuntatzeko bide bat baino gehiago daukate herritarrek. Pasa daitezke Michelingo pilotalekutik, astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Bestela, posta elektronikoki bidez ere eman daiteke izena, solanojf@hotmail.com helbidera idatzita. Ohar batzuk ere eman ditu antolatzaileak, Intza KE hain justu: zehaztu du materiala eurek jarriko dutela, eta ez direla txapelketako partidak jokatu



Irudian, iazko txapelketetako parte hartzaile eta antolatzaileak.

bitartean jazo daitezkeen istripu edota lesioez arduratuko.

Benjamin –2006 eta 2007an jaiotakoak–, alebin –2004 eta 2005– eta infantil –2002 eta 2003– kategoriako neska-mutil herritarrek izango dira protagonista San Pedro jaietako XXIV. esku pilota txapelketan. “Kirola egiteko arropa egokiarekin” jokatzeko “ezinbestekoa” izango da.

Emakumezkoen pala txapelketa hirugarrenez antolatuko du Intza KE. Horretan parte hartu nahi duten emakumeek herrikoak izan behar dute, eta 2000. urtea baino lehen jaiotakoak.

Beteranoen txapelketaren VI. edizioko baldintzak hauek dira: herrikoak izan behar dute jokalariek, eta 1980a baino beranduago jaiotakoak.

LABURRAK.-

GESekin hitzarmena berri du Ostadar SKTk

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak eta Lasarte-Oriako Ges Aseguruak hitzarmena berri dute. Bi entitateek Ges Aseguruak bulegoan sinatu zuten hitzarmena joan den astean.

Ostadarreko ordezkariak pozik daude: “Ges Aseguruak eskaintzen digun laguntza ezinbestekoa da. Ges gazteen taldeko babeslea izan arren, aldi berean, Ostadarrek burutu nahi duen kirol egitasmoari laguntzen ari baitaio. Eskerrak eman behar dizkiegu gure egitasmoan sinesteagatik eta urteko urtera gurekin jarraitzeagatik”.



LOKEko gimnastak, ikasitakoa plazaratzen



Hilabeteotan ikasitakoa plazaratu zuten LOKEko gimnastek pasa den larunbatean, Udal Kiroldegian. Guraso, lagun eta ahaideen aurrean koreografia ikusgarriak egin zituzten. Txalo zaparrada ozen eta luzeekin saritu zuten ikusleek Maite Ruedaren ikasleen lana.

Uztaiak, mazak, pilotak... Hainbat material eta elementu konbinatuz, erakustaldi ederra eskaini zuten gimnastek, hasi alebinetatik eta seniorretaraino.

Agenda

Ostirala 29, 20:00etan, Okendo plaza



Dantzaren beharra

Apiairalen 29a Dantzaren nazioarteko eguna da. Kukuka Antzerki eta dantza eskolak Udalaren laguntzaz egun seinatua ospatzeko dantza topaketa antolatuta du. Lasarte-Oriako dantza eskola ezberdinen emanaldia ikusi ahalko da. Bertan izango dira Kukuka eskolaz gain, Erketz EDT, Amaia Gonzalez Caballeroen ikasleak, baita Semblante Andaluz elkarteko dantza taldeak ere. Jolas berezi bat ere egingo dute taldeek eta dantzaren nazioarteko eguneko manifestua irakurriko da.

Larunbata 30

12:00etan, Oaintxe in deu Txarangarekin girotzea

12:30ean, Ongi etorri ekitaldia:

Aurrekua Txalagore

Sorgin dantza

13:30ean, babarrun jana herrikoia

16:00etan, txapel banaketa bertsolarien laguntzarekin

16:30ean, mahaitik altxatu eta denen artean jasotzea.

17:00etan, Okendotik kalejira irteera.

Parte hartzaileak:

Ball de diables, Ball de Serralonga, Ball de Bastons, Ball de Pastonets, Colla castellera nois de la torre eta herriko Oaintxe in deu txaranga eta rezibatukada.

17:30ean, Isla plazan erakustaldia

18:30ean, Okendora bueltatzea.

19:00etan, erakustaldia

20:30etan, ekitaldia. Katalanen agurra

20:30ean, kontzertua

22:00etan, jai amaiera kriseiluak aire-ratuz GEDren eskutik

Igandea 1

10:00etan, diana egingo da herriko kaleetatik, musikaren laguntzaz.

12:00etan, "Vermut" a eta elikagai tipikoen dastatzea izango da.

Hitzaldia

LEKAIK KULTUR ETXEA, URNIETA

Larunbata 30, 11:00etan

Elkarbizi taldeak 'Euskal literatura eta bizikidetzatza' ikastaroa burutuko du, Pello Otxoteko irundar olerkariaren eskutik. Izena 28a baino lehen eman behar da, ganboiturri@gmail.com helbidean.

Lasarte-Oria

Umore-terapia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Asteazkena 27, 19:00etan

'Umorekin hobeto zaintzen garelako' umore-terapia tailerra eskainiko du Nagore Vazquez psikologoak.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 29, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen eskutik, 'El novato' filma eskainiko dute. Ostean solasaldia izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 1, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'Iparral-

deko Norman' filma eskainiko dute. Sarrera, 4,80 euro. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 1, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Brooklyn' filma eskainiko dute. Sarrera, 5,50 euro.



Liburu aurkezpena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 29, 19:30ean

Ludi Cuesta herritarrek jendartearen aurkeztuko du 'Solo una voz' poema-liburua.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 30, 19:30ean

Haurrei zuzendutako 'Letter: eskutik baten bidaia' antzezlanaren oholzaratuko du Malas Compañías taldeak. Sarrera, 6,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 6, 19:30ean

Ttanttaka taldeak 'El Florido Pensil - Neskak' antzezlanaren eskainiko du. Sarrera interneten, 12 euro.

Jaialdi Kulturala

LASARTE-ORIA

Lasarte-Oria eta Torredembarra herrien arteko adiskidetasun jaialdia izango da herrian

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, gaur apirilaren 25a, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Odol ateratzea

Gaur apirilaren 25a, hilabeteko azken astelehena denez, odola eman ahal izango da Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkatzeko da eta odol falta dago!

Udaberri Festako marrazki erakusketa

Lasarte-Oriako Merkatarien elkarte den Aterpeak, iazko Udaberri Festan antolatu zen marrazki erakusketa arrakasta ikusita, egitasmoa berriro antolatzea erabaki du.

Erakusketako gaia Lasarte-Oriaren 30. urteurrena izango da. Hori dela eta, herriko txoko kuttunena marraztu beharko dute.

3 eta 12 urte bitarteko ikasleei zuzendutako erakusketa da. Zumaburu liburudendan edota Kattagorri jolasdendan eskuratu ahal izango dute marrazkia egiteko kartoi mehea.

Apirilaren 30a bitartean kartoiak jaso zuten leku berean aurkeztu beharko dira marrazkiak.

Aterpeak, bere aldetik, maiatzaren 9tik 13ra jarriko ditu ikusgai bere saltoietan. Egun horietan, haurrek haien marrazkiak bilatu beharko dituzte Lasarte-Oriako dendetan. Aurkituz gero, oparitzoa jasoko dute.

Eskutitza

Prekarietateak gaixotu eta hil egiten du

XXI. mendean aurrera goaz, jendar-teak sekulako bilakaera izan du eta sinesgaitza bezain onartezina bada ere, oraindik, lanera joatean gure bizitza arriskuan jartzen dugu. Hori da egunero milaka langilek bizi duten errealitate gordina. Datuak hor daude, 2015ean 55 heriotza istripu izan ziren eta 2016an jada 16 langile hil dira istripu baten ondorioz Euskal Herrian. Kopuru hau gorantz doa.

Lanean gaixotu egiten garela ezkutitzen saiatzen dira; hain zuzen ere kalkulatu da laneko gaixotasunen %83 ez dela aitortzen. Baina, amianto, silizea edo dana dalakoaren ondorioz gaixotu nahiz hildako langileen zerrenda luzea da oso.

Bestalde, gihar eta hezurduraren lesioak, antsietatea, depresioa, infartuak, suizidioak etab. gero eta gehiago gertatzen dira. Hauek, laneko estatistika ofizialetan azaldu ordez gaixotasun arrunt moduan azaltzen dira gehienetan.

Errealitate horren arrazoiak ezagunak dira, prekarietatea eta prebentzio

neurri eskasak. Patronalak etekina soilik du helburu, langileon bizitza arriskuan jarri behar badu ere. Eta instituzioak, arduragabeak, dugun babes apurra (OSALAN...) murrizten dute.

LABek lan osasuna eskubidea izan dadin borrokatzen jarraituko du, horretarako egin dezakegun borrokarik hoberena prekarietatearen kontrako borroka indartzea dela ulertzen dugu eta horrekin batera lantokietan prebentzio neurriak exijitzeko ekintza sindikala indartu.

Egoera honen aurrean mobilizazioan sakontzea dagokigu. Lan osasunaren nazioarteko eguna den apirilak 28an, maiatzak 1ean eta beharrezkoa den guztietan.

eskuBIDEAK aktiBATUZ
langileok martxan

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi
edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus

LAB BURUNTZALDEA

Dantza Topaketa berezia ostiralean

Lasarte-Oriako dantza eskolek Dantzaren nazioarteko eguna ospatuko dute Okendo plazan

Apirilaren 29an, ostiralean, dantzaren nazioarteko eguna ospatzen da. Mundu osoan ekitaldiak burutuko dira eta Lasarte-Orian ere Kukuka Antzerki eta dantza eskolak sustatuta herriko dantza eskolen emanaldi berezia izango da.

Augarren urtez, Kukuka antzerki eta dantza eskolak mundu osoan antolatu diren dantzaren nazioarteko egunaren ospakizunekin bat egingo du eta Lasarte-Orian dantzan duen presentzia gerian utziko du. Horretarako, ostiralean, dantzaren egunean bertan, 20:00etatik aurrera, Okendo plazan herriko dantza eskolen topaketa antolatu du.

Kukukak, Erketz EDTk, Amaia Gonzalez Caballero eta bere ikasleak eta Semblante Andaluz elkarteko dantza taldeak izango dira emanaldi berezi batean.

Kukukako lagunek aipatu digutenez, "urtero saiatzen gara zerbait ezberdina egiten, erakustaldi soila izan ez dadin".

Eskola arteko "jolasa"

Hori dela eta, aurtengo emanaldiak bi zati izango ditu.

Lehenik talde guztiek erakustaldi txiki bat egingo dute. Dantza estilo aniztasuna erakutsiko dute honetan, dantza garaikidea, euskal dantza, sevillanak edo saltsaz gozatu ahalko da.

Bigarren zatia, berriz, eskolen arteko "jolasa" izango da.

Oholtza gainean, dantza estilo ezberdinen berdintasunak ikusi ahalko dira. "Estiloak alderatuko ditugu haien artean dauden antzekotasunak ikusteko," aipatu dute.

Era honetara, musika kubatarraren laguntzaz, "ruedo" kubatarra eta muxikoak dantzatzeko dira batera.

Euskal musikarekin berriz,



laz erakustaldi txikia eta estilo bakoitzeko pauso batzuk erakutsi zituzten dantza eskolek Okendo plazan egindako saioan,

banakakoa eta funkyaren mugimenduz gozatu ahalko da eta euskal fandangoa eta sevillanak ere dantzatzeko dituzte.

Ekitaldiari amaiera emateko dantzaren nazioarteko egunaren manifestua irakurriko da. Urtero dantzari edo

koreografo batek idazten duen testua dugu manifestua. Aurtun Lemi Ponifasio koreografo samoarrak izan du ohorea eta 'Karakia' du izenburu.

Irakurketa egiten den bitartean, eskola ezberdinetako kideek soka-dantza egingo dute. Honen bitartez "komunitate bere-

koak garena" irudikatu nahi dugu.

Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldia Manuel Lekuna kultur etxean egingo dela aurreratu dute.

Honetaz gain, topaketa antolatzeko Udalaren laguntza ere izan dutela jakitera eman nahi izan dute.



LASARTE-USURBIL INSTITUTUA



- **D.B.H.**
- **BATXILERRA**

ATE IREKIAK: apirilaren 27an, 17:30etan

AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 2tik 12ra



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - Lasarte-Oria • Tel. 943 37 28 52 / 943 37 22 77

www.instilasarte.net